

8/1989 Foru Araua, ekainaren 30ekoa, Hiri-Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzkoa (BAO Uztailaren 19koa)

Ekonomia-Ituneak Kondaira Lurraldeetako Erakunde agintedunei, zerga-erregimena zaintzeko, jartzeko eta araupetzeko, aitortzen aginpidearen indarrez, Foru Arau honek Hiri-Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga araupetu nahi du.

Toki-Ogasunei buruzko Foru Arauak sortu du zerga, Udalerrien baliabide-sistema berri bat sortzeko asmotan, hots, ikuspegi materialetik, finantz-autonomia eta nahikotasunezko erizpideak gauzatzeko bide eman dezan sistema bat.

Hiri-Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga borondatezko tributu moduan eratzen da, eta hori indarrean jartzeak Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga ezabatzea dakar.

I. KAPITULUA IZAERA ETA EGITATE EZARGARRIA

1. artikulua.

1. Hiri-Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga zuzeneko tributua da, lur horiek eduki eta aipatu lurak erabiltzeko, gabaria mugatuz, gozameneko edozein ondasuneskubideren zioz haien jabaria eskualdatzearen ondorioz ageriko jartzen den balio gehikuntza kargatzen duena.
2. Ez dago zerga honen menpean Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondoreetarako landakotzat hartutako lurren balioaren gehikuntza. Aldiz, Zergapean da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondoreetarako hirikotzat hartu behar diren lurren balioaren gehikuntza, katastroan edo erroldan hala ageri zein ez. Zerga honen ondorioetarako, ezaugarri bereziko higiezin gisa sailkatutako lurzoruek duten balio-gehikuntza zerga honen mende egongo da, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako.
3. Ezkontideek ezkontza-sozietateari ondasunak edo eskubideak ekartzen dizkiotenean ez dago Zerga ordaindu beharrik, ez eta hark ordainketa gisa adjudikazioak jasotzen dituenean eta ezkontideek ondasun komunak ordainketa gisa elkarri eskualdatzen dizkiotenean ere.

Halaber, ezkontza deuseztu edo senar-emazteak banandu edo dibortziatuz gero, horretaz emandako epaia betearazteko ezkontide batek besteari ondasun higiezinak eskualdatzen badizkio edo ezkontideek euren seme-alabei eskualdatzen badizkie, eragiketa ez dago Zergaren kargapean, dena delakoa ezkontzaren araubide ekonomikoa.

Gauza bera aplikatuko da, aurreko paragrafoetan aipatu balizkoen arabera, Izatezko Bikoteak arautzekoa den maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik osatutako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpen, adjudikazio eta eskualdaketei.

4. Ez dira zergapean egongo eskualdatze- eta eskuratze-datetan lursail horien balioen arteko aldeagatik balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzen den lursailen eskualdatzeak.

Horretarako, balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzeko interesa duen pertsonak edo entitateak eskualdatzea deklaratu beharko du, bai eta eskualdatzea eta eskuraketa dokumentatzen duten tituluak aurkeztu ere. Ondorio horietarako, pertsona edo entitate interesdunak dira foru-arau honen 3. artikuluan zehazten direnak.

Balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzeko, lursailaren eskualdatze- edo eskuraketa-balioztat hartuko da, kasu bakoitzean, balio hauetatik handiena. Ondorio horietarako, ezin dira eragiketa horiek kargatzen dituzten gastu edo tributuak zenbatu, eta denbora igarotzeagatik ezin da eguneratzerik egin.

- a) Eragiketa dokumentatzen duen tituluan jasota dagoena.
- b) Hala dagokionean, zerga-administrazioak egiaztatu duena.

Lurzorua eta eraikuntza dituen higiezin baten eskualdatzea denean, lurzoruaren balioztat hartuko da, ondorio horietarako, zergaren sortzapen-datan lursailaren katastro- balioak duen proportzioa katastro-balio osoarekiko aplikatuta ateratzen dena. Eta, lurzoruaren katastro-balioa eta eraikuntza banakatu gabe badaude, lurzoruaren balioztat hartu ahal izango da katastro-balioaren gaineko % 40, eta proportzio hori eskualdatze-balioari (eta, hala badagokio, eskuratze-balioari) aplikatuko zaio. Paragrafo honetan ezarritakoa gorabehera, aurreikusitakoaz bestelako proportzio bat aplikatu ahal izango da, pertsona edo entitate interesdunak hala egiaztatzen duenean.

Eskuratzea edo eskualdatzea kostu gabekoa denean, aurreko paragrafoetako arauak aplikatuko dira, eta, hala badagokio, lehen aipatu diren alderatu beharreko bi baloreetatik lehenengotzat hartuko da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan aitortutakoa.

II. KAPITULUA **SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

2. artikulua.

1. Zerga honetatik aske daude ondoko egintzen ondorioz azaltzen diren balio-gehikuntzak:
 - a) Zortasun-eskubideak eratzea eta eskualdatzea.
 - b) Ondare Kulturalari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritakoaren arabera multzo historiko-artistiko adierazitako eremu baten barruan dauden ondasunen edo kultur intereseko adierazitako ondasunen eskualdaketak, baldin eta jabeek edo eskubide errealen titularrek frogatzen badute higiezinak artatzeko, hobetzeko edo zaharberritzeko obrak egin dituztela euren kargura. Horren ondoretarako, ordenantza fiskalean ezarritako dira salbuespenaren funtsak eta erak.
2. Halaber, balio-gehikuntzak zerga honetatik aske daude zerga ordaindu behar dutenak ondoko pertsona edo erakundeak direnean:
 - a) Estatua, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta bertako toki erakundeak, eta Autonomia Erkidegoko eta toki erakunde horietako organismo autonomoak eta zuzenbide publikoko antzeko erakundeak.
 - b) Zerga aplikatu den udalerria eta bertako toki erakunde guztiak, bai eta haietan ari diren organismo autonomoen antzeko zuzenbide publikoko erakunde guztiak ere.
 - c) Ongintzako edo ongintza-irakaskuntzako erakundeak.
 - d) Gizarte Segurantzaren eta indarreko legeriaren arabera eraturik dauden mutualitate eta montepioen kudeaketa-erakundeak.
 - e) Nazioarteko hitzarmen edo itunetan zerga honen salbuespena aintzatetsi zaien pertsona edo erakundeak.
 - f) Administrazioaren emakida lehengoragarrien titularrak, haiei loturiko lurrei dagokienez.
 - g) Gurutze Gorrikoak eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuenak.

3. Ez da Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga sortuko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko VI. tituluko VII. kapituluaren araututako araubide berezia aplikatzeko zaien hiri-lurren eskualdaketaren ondorioz. Salbuespena: foru arau horretako 111. artikuluan ezarritakoaren babesean ekarpen gisa ematen diren lurren eskualdaketak, jarduera-adar batean sartuta ez badaude.

Gero, lur horiek eskualdatzen direnean, ulertuko da balioaren gehikuntza agerian jarri den urteetan ez dela etenik izan foru arau horretako VI. tituluko VII. kapituluaren ezarritako eragiketen ondoriozko eskualdaketaren eraginez.

4. Pertsona fisikoek kasu honetan egindako eskualdaketak salbuetsita daude zerga honetan: Hipoteka-zordunak edo zordun horren berme-emaileak ordainean ohiko etxebizitza ematen duenean etxebizitzaren gaineko hipotekarekin bermatutako zorrak kitatzeko, salbu eta kreditu-entitateekin edo modu profesionalean maileguak edo hipoteka-kredituak ematen dituen beste edozein entitatearekin dituen zorrak badira.

Halaber salbuetsita egongo dira aurreko paragrafoko baldintzak betetzen dituzten etxebizitza-eskualdaketak, baldin eta eskualdatzea betearazpen hipotekario, judicial edo notarialen ondorioa bada.

Salbuespenerako eskubidea izateko, eskualdaketa egiten duen zordunak edo haren berme-emaileak edo haren familia-unitateko beste edozein kidek, etxebizitzaren besterentzea saihestu daitekeen unean, ez du izan behar hipoteka-zor osoari erantzuteko besteko ondasun edo eskubiderik. Betekizun hori berez betetzen dela ulertuko da. Nolanahi ere, ondoren egiaztatzen bada ez dela betekizuna betetzen, dagokion tributu-likidazioa egingo da.

Zenbaki honetan ezarritako ondorioetarako, ohiko etxebizitza izango da, hain zuzen ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 87. artikuluko 8. zenbakian hala definitutakoa.

Familia-unitatearen kontzeptuari dagokionez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 98. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Ondorio horietarako, parekatu egingo dira ezkontza, batetik, eta Eusko Legebiltzarraren 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikotea, bestetik.

III. KAPITULUA SUBJEKTU PASIBOAK

3. artikulua.

1. Zergaren subjektu pasiboa da zergadun gisa:
 - a) Lurren dohaineko eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealeen dohaineko eraketan edo eskualdaketan, lurra eskuratzen duen edo eskubide errealearen eraketa edo eskualdaketa jasotzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34.3 artikuluan aipatutako erakundea.
 - b) Lurren kostu bidezko eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealeen kostu bidezko eraketan edo eskualdaketan, lurra eskualdatu edo eskubide erreala eratu edo eskualdatzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34.3 artikuluan aipatutako erakundea.
2. Aurreko zenbakiko b letran aipatutako kasuetan, zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat hartuko da lurra eskuratzen duen edo eskubide errealearen eraketa edo eskualdaketa jasotzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 34.3 artikuluan aipatutako erakundea, zergaduna egoitza Espainian ez duen pertsona fisikoa bada.

3. Hipotekaren zordunak edo haren berme-emaileak bere ohiko etxebizitza ordainean ematen badio kreditu-entitate bati edo modu profesionalean maileguak edo hipoteka- kredituak ematen dituen beste edozein entitateri, edo betearazpen hipotekario, judizial edo notarial baten ondorioz etxebizitza horren eskualdatzea gertatzen bada arestian aipatutako entitate horietako baten alde, higiezina eskuratzen duen entitatea zergadunaren ordezkotzat hartuko da, baina ordezkotza ezin izango dio zergadunari galdatu berak ordaindutako tributu-betebeharren zenbatekoa. Paragrafo honetan aurreikusitako ondorioak sortzeko, foru arau honetako 2. artikuluko 4. zenbakian salbuespenerako eskubidea izateko ezartzen diren betekizun berberak bete behar dira.
4. ...

IV. KAPITULUA **OINARRI EZARGARRIA ETA KUOTA**

4. artikulua.

1. Zerga honen oinarria lursailen balioaren gehikuntza da, sortzapenarekin batera azaltzen dena, eta gehienez ere hogeitun urtean metatutakoa. Zerga-oinarria honela zehaztuko da, artikuluko honen 4. idatz-zatian ezarritakoa gorabehera: lursailak sortzapen- unean duen balioa — artikuluko honetako 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera kalkulatu —, bider sortzapen-aldiari dagokion koefizientea — 3. idatz-zatian ezarritakoarekin bat —.
2. Lurrek sortzapen-unean izan duten balioa erregela hauen bitartez kalkulatu da:
 - a) Lur-eskualdaketetan, lurren balioa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondoretarako finkatutakoa izango da. Erabilaren batean lurren eta eraikuntzaren katastro-balioa ez badago banakatuta, balio horren %60 aplikatu ahal izango da.

Udalek aurreko paragrafoan adierazitako balioaren gaineko koefiziente murriztaile bat ezarri ahal izango dute ordenantza fiskalean, haren eguneratze gradua haztatze-ko; gehienez ere, ehuneko 15.
 - b) Jabaria mugatzen duten ondasunen gaineko eduki-eskubideak eratzten eta eskualdatzen direnean, urteko portzentajeak, artikuluko honetako 3. artikuluan adierazi direnak, aurreko letran definitu den balioaren eta eskubideek, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondoretarako finkatuta dauden arauak ezarritik, duten balioaren arteko diferentziari aplikatu zaizkio.
 - c) Eraikin edo lur batean solairu bat edo gehiago eraikitzeko eskubidea eratzten edo eskualdatzen denean, edo zorupean eraikitzeko eskubidea, azalaren gaineko ondasun-eskubiderik ez eduki arren, artikuluko honetako 3. idatz-zatian aipatutako urteko portzentajeak a) letran finkaturiko balioaren zatiari aplikatuko zaizkio, eta balioari eskualdaketa-eskirituran finkaturiko proportzotasun-modulua aplikaturik sortzen den balioari edo, horren ezean, hegalduran edo zorupean eraikiko den azalera edo bolumenaren eta guztirako azalera edo bolumenaren arteko proportzioa aplikaturik sortzen denari.
 - d) Derrigorrezko desjabetzapenak daudenean, artikuluko honetako 3. idatz-zatian bildutako urteko portzentajeak lurren balioari dagokion balioespenaren zatiari aplikatuko zaizkio, lur horren katastro-balioa txikiagoa denean izan ezik, horrelakoetan azken balio honek lehentasuna izango baitu balioespenaren gainetik.
3. Gehikuntza hori agerian jarri den urte kopurua izango da balio-gehikuntzaren sortzapen-aldia.

Zergaren kargapean ez dauden kasuetan, salbu eta foru-agindu bidez besterik ezartzen ez bada, lursailaren geroko eskualdatze batean agerian jarritako balio-gehikuntzaren sortzapen-aldia kalkulatzeko eskuratze-datatzat hartuko da zergaren aurreko sortzapena gertatu zen data, aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, foru-arau honen 1. artikulua 4. idatz-zatian xedatutakoa aplikatu behar zaien higiezin geroko eskualdatzean, lursailen balio-gehikuntza agerian jarri den urte kopurua kalkulatzeko, ez da kontuan hartuko lursailak eskuratu aurreko aldia, kasu hauetan izan ezik: zergapean ez dauden ondasun higiezin ekarpen edo eskualdatzeetan, kontuan harturik zer ezarrita dagoen foru-arau honen 1. artikuluko 3. idatz-zatian, edo 2. artikulua 3. idatz-zatian; kasu horietan, aurreko paragrafoan xedatu dena aplikatuko da.

Igaro den urte kopurua kalkulatzeko urte osoak soilik zenbatuko dira; ez dira kontuan izango urte-zatikiak. Baldin eta sortzapen-aldia urtebete baino gutxiago bada, urteko koefizientea hainbanatuko da, hilabete osoak zenbatuta; hau da, ez dira kontuan izango hilabete-zatikiak.

Sortzapenaren unean lursailaren balioari aplikatu behar zaion koefizientea — aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera kalkulatua — udalak onartu dituenekin bat datorrena izango da, balio-gehikuntzaren sortzapen-aldia zein den kontuan hartuta, betiere muga hauek gainditu gabe:

Sortzapen - aldia	Koefizientea
Urte 1etik beherakoa	0,15
1 urte	0,15
2 urte	0,14
3 urte	0,15
4 urte	0,17
5 urte	0,18
6 urte	0,19
7 urte	0,18
8 urte	0,15
9 urte	0,12
10 urte	0,10
11 urte	0,09
12 urte	0,09
13 urte	0,09
14 urte	0,09
15 urte	0,10
16 urte	0,13
17 urte	0,17
18 urte	0,23
19 urte	0,29
20 urte edo gehiago	0,45

Gehieneko koefiziente horiek foru-agindu bidez eguneratuko dira urtero, eta eguneratze hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren bidez egin daiteke.

Baldin eta, aurreko paragrafoan aipatzen den eguneratzearen ondorioz, indarrean dagoen ordenantza fiskala dela bide onartutako koefizienteren bat handiagoa bada legez ezarritako gehieneko koefizientea baino, zuzenean aplikatuko da handiagoa den koefiziente hori, gaindikin hori zuzentzen duen ordenantza fiskal berria indarrean jarri arte.

4. Subjektu pasiboak eskatuta eta 1. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako prozedurarekin bat, egiaztatzen denean balio-gehikuntzaren zenbatekoa txikiagoa dela artikuluko honen aurreko idatz-zatietan jasotakoarekin bat zehaztutako zerga-oinarriaren zen- batekoa baino, balio-gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat.

5. artikulua.

1. Zergaren karga tasa udal bakoitzak finkatuko du, eta tasa hori ezingo da inoiz izan 100eko 30etik gorakoa.
2. Zergaren kuota osoa zerga-oinarriari karga-tasa aplikatuko zaio.
3. Zergaren kuota likidoa kalkulatzeko, kuota osoari hurrengo idatz-zatiko hobaria aplikatuko zaio, egonez gero.
4. Ordenantza fiskaletan Zergaren kuota osoaren % 100era arteko hobari ezar daiteke ondorengo edo adoptatuentzat, ezkon-tidearentzat edo izatezko bikoteko beste kidearentzat (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko biko-tea) eta aurreko zein adoptatzaileentzat egiten diren lur-eskual-daketetan edota jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide erre-alak eskualdatzen edo eratzen direnetan, halakoak heriotza dela kausa eta dohainik eginez gero.

Aurreko idatz-zatian aipatutako hobariaren gainerako alderdiak, funtsezkoak zein erazkoak, ordenantza fiskalean araupetuko dira.

V. KAPITULUA SORTZAPENA

6. artikulua.

1. Zerga data hauetan sorteraziko da:
 - a) Lurraren jabetza bizien artean edo heriozaren zioz eskualda dadinean, kostubidez edo doan izanik ere, eskualdaketa datan.
 - b) Jabaria mugatzen duen edozein ondasun-eskubide eratu edo eskualda dadinean, eraketa edo eskualdaketa gerta dadin datan.
2. Ebazpen irmoaz lurraren eskualdaketa edo beronen gaineko gozameneko ondasun-eskubidearen eraketa edo eskualdaketa sorterazi zuen egintza edo kontratuaren balio-gabetze, hutsalketa edo deuseztapena gertatu dela epaibidez edo administraziobidez adieraz edo aintzatets dadinean, subjektu pasiboak ordaindutako zergaren itzulketak egin diezaioten eskubidea izango du, beti ere egintza edo kontratu horrek irabazpiderik eman ez badio eta itzulketak, ebazpena irmo hartu zenetik bost urtetako epearen barruan galda dezanean, irabazpiderik dagoelakotzak interesatuek Kode Zibilaren 1.295. artikuluko aipatu elkarrekiko itzulketak burutu behar dituztela bidezkotzen ez denean joko delarik. Egintzak edo kontratuak irabazpiderik sorterazi ez badu ere, hutsaleta edo deuseztapena zergaren subjektu pasiboaren eginbeharrak ez betetzearen zioz adieraziz gero, ez da ezertan ere itzulketarik egon.
3. Kontratuak, alde kontratatzaileen elkarren arteko adostasunez, ondorerik gabe gera badadi, ez da ordaindutako zerga itzuliko eta tributuak ordaindu beharreko egintza berritza hartuko da. Elkarren arteko adostasuntzat adiskidetze-egintzako adostasuna eta demandarekiko amoregite hutsa joko dira.
4. Egintza edo kontratuak baldintzaren bat dutenean, Kode Zibileko aginduen arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengarria bada, zerga ez da likidatuko hura bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, bertatik eskatuko da zerga, eta, baldintza betetzen denean, egin beharreko itzulketak egingo da aurreko paragrafoko erregelarren arabera.

Alkar-poderosoaren edo testamentu-ahalordearen bidezko jarauntsietan, ahalordea modu ezeztazinean erabiltzen denean edo bera azkentzeko arrazoietako baten bat gertatzen denean sortuko da zerga.

5. Baldin eta «alkar-poderoso» edo testamentu-ahalordean pertsona jakin bati eman bazaio jarauntsiko ondasunez bizi artean gozatzeko eskubidea, eta, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 3/1992 Legea indarrean jarri aurretik ezkontide alargunari egiletsitako testamentu-ahalordeetan, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, gozamenaren kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera, eta biziarteko gozamenei buruzko arauak aplikatuta.

Baldin eta «alkar-poderoso» edo testamentu-ahalordean gozamina azkentzen bada ahalorde hori erabiltzen denean, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamenaren kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

- a) Lehenengo likidazioa, kausatzailea hiltzen denean, biziarteko gozamenari buruzko arauak aplikatuta.

Testamentu-ahalordea erabiltzeko epea zehaztuta badago, ordea, lehenengo likidazio hori aldi baterako gozamenaren arauekin bat egingo da, ahalorde hori erabiltzeko ezarrita dagoen gehieneko epearen arabera.

- b) Beste likidazio bat, «alkar-poderoso» edo testamentu-ahalordea erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauekin bat, kausatzailearen heriotzatik igarotako denboraren arabera. Aurreko likidazioetatik ordaindu dena konturako sarreratzat joko da, eta diferentzia gozamenari itzuliko zaio, haren aldekoa bada.

b) Letran aipatzen den likidazio hori eta alkar-poderoso edo testamentu egiteko ahala erabiltzeagatik edo berau iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunse diren likidazioa aldi berean egingo dira.

6. Xedapen egintzen ondorioz, testamentu-ahalordea noiz baliatu zain dauden jarauntsiei dagozkien lurren eskualdaketei, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldin eta eskualdaketa horrek ez badakar Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapenik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-Sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara moldatu duen urriaren 15eko 7/2002 Foru Arauko II. Tituluko II. Kapituluaren xedatutako aplikatuko zaie.

VI. KAPITULUA KUDEAKETA

7. artikulua.

1. Subjektu pasiboek, bakoitzak bere Udalean, dagokion Ordenantzak zehaztuko duen aitorpena aurkeztu behar izango dute, hark bidezko likidazioa egiteko tributu zerrendaren barruko behar-beharrezko elementuak bilduko dituelarik.
2. Aitorpen hori jarraian adieraziko diren epeen barruan aurkeztu behar izango da, zergaren zortzapena sortuko den datatik aurrera zenbatuko delarik:
 - a) Bizien arteko egintzetan, epea hogeitamar astegunetako izango da.
 - b) Heriotzaren ziozko egintzetan, epea urtebetekoa izango da.
3. Aitorpenari ezarpena sortzeraziko duten epeak edo kontratuak bilduko dituen agiria erantsiko zaio.
4. Udalei ahalmena ematen zaie subjektu pasiboarentzako autolikidazio sistema ezar dezaten, artikuluan honen 2. atalean aurreritatutako epeen barruan haren emaitzako kuotaren sarrera

izango duela. Autolikidazio horiei doakielarik, 1. artikularen 4. idatz-zatian eta 4. artikularen 4. idatz-zatian ezarritakoaren ondorioetarako (hurrenez hurren) eta kalterik egin gabe pertsona edo entitate interesdunak edo subjektu pasiboak aitortutako balioak egiaztatzeko ahalmenei, udal bakoitzak soilik egiaztatu ahal du likidazio horiek egiterakoan zuzen aplikatu dela zergaren araudia. Ezin izango da ezarri arau horietan ezarri ez den balio, oinarri edo kuotarik.

5. Udalek autolikidazio sistema ezar ez dezatenean, zergaren likidazioen berri emango zaie subjektu pasiboari, oso-osorik, sarrera epea adieraz eta bidezko baliabideen aipamena eginez.
6. Artikulu honen 1. atalean xedatutakoaz at, jarraian adieraziko direnek jakinerazi egin beharko diote, nahitaez, Udalari egitate ezargarriaren buruketa subjektu pasiboaren epe berberen barruan:
 - a) Honako Foru Arau honen 3. artikularen a) letran bildutako balizkoetan, beti ere bizien arteko negozio juridikoaren zioz sorterazitakoetan, dohaintza-emailea edo ondasun-eskubidearen eratzaila edo eskualdatzaila.
 - b) Aipatu artikularen b) letrako balizkoetan, eskuratzaila edo ondasun-eskubidea bere alde eratu edo eskualdatuta duen pertsona.
7. Era berean, Notariak egutegiko hiruhilabeteko bakoitzaren lehen hamabostaldiaren barruan, egutegiko aurreko hiruhilabetekoan beraiek baimendutako agiri guztien zerrenda edo indize laburtua igorri behar izango dute nahitaez, bakoitzak bere Udalari, haiek, dena den, eskuhartzaileen izen-deiturak, nortasun agiri nazionala eta helbidea eta, agintzak bil ditzatenetan, zerga honen egitate ezargarriaren eginkizuna ageriko jar dezaten egintza edo negozio juridikoak bilduko dituztelarik, azken borondateko egintzen salbuespenarekin. Epe berberaren barruan ere jakinaren gainean egon edo izenpeak legeztatze aurkeztu izan zaizkien egitate, egintza edo negozio juridikoen zerrenda igorri behar izango dute. Atal honetan aurrikusitakoa Bizkaiko Foru Tributu Arau Orokorrean ezarritako lankidetzazko betebeharrak orokorraren kalterik gabe.
8. Bizkaiko Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan xedatutakoa dela bide, Bizkaiko Foru Aldundiak eta toki-erakundeek lankidetzan jardungo dute zerga aplikatzeko, bereziki 1. artikularen 4. idatz-zatian eta 4. artikularen 4. idatz-zatian ezarritakoa betetzeko. Horretarako, zergei buruzko informazioa trukatzeko eta lankidetzarako hitzarmenak egin ahal izango dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehena.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 1984/8. Foru Arauaren 25. artikuluko G) letrari laugarren atala erantsi zaio, honelaxe idatziko delarik:

«Lau: Hiri-Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren kuotaren % 75a, ekitaldian ordaindua»

Atal honetan xedatutakoa honako Foru Arau honen lehen Xedapen Iragankorraren lehen atalean aurrikusitako dataz gero izango da aplikagarri.

Lehena (SIC). Hiri-lurren balio-gehikuntzaren zehaztapena

...

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.

Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren zergaoinarria zehazteko, katastro-balioak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauan ezarritakoaren arabera berrikusten ez diren bitartean, ondoko balioen artean hautatu ahal izango dute udalek, alde zuzenetik berariazko erabakia harturik:

- a) 1989ko abenduaren 31n indarrean egon ziren Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergaren balio indizeen tauletako balioak aplikatzearen ondoriozkoak.
- b) Foru arau hau aplikatzearen ondoriozkoak. Horretarako, zerga honen likidazio-oinarritzat Ondasun Higiezinaren Zerga ordaintzeko finkatu den katastro-balioa hartu ahal izangoda, %60 txikituta, lurraren eta eraikuntzaren balioabereizi gabe daudenean.
- c) Lurraren benetako balioa; lurraren gutxieneko balioa zehazteko arau bidez ezarritako arau teknikoak aplikatuta kalkulatu da.

Erabileraren batean lurraren eta eraikuntzaren gutxieneko balioa ez badago banakatuta, balio horren % 60 aplikatu ahal izango da.

Interesdunek aitortutako lursailaren balioa, zerga honen ondorioetarako, letra hontan ezarritako arauak ezartzetik ateratakoa baino altuagoa izango balitz, zerga-oinarritzat hartuko da.

Letra honetan araupetutako balioa aplikatzea hautatuz gero, Zergaren karga-tasa udalak finkatuko du (ezin da izan % 10 baino gehiago).

Ebaluazio-prozeduraren ondoriozko administrazio-egintzen aurka berraztertze errekurtsioa aurkez daiteke edo, bidezkoa denean, administrazioarekiko diru-erreklamazioa, zergen arloko ger-taeretan edo zuzenbidezko egitateetan oinarrituz gero.

Eskualdatutako ondasunen edo eskubideen balioen egiazta-pena dela-eta sortzen diren desadostasunak Bizkaiko Foru Aldun-dian aurrean ebatzi ahal izango dira, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Araudia onetsi duen ekainaren 5eko 106/20012 Foru Dekretuan araupetutako peritu-tasazio kontrajarriaren bidez.

Aurreko paragrafoan aipatutako peritu-tasazio kontrajarrira jotzen bada, konturako behin-behineko likidazioa egingo da zerga-oinarritzat subjektu pasiboak aitortutako balioa hartuta. Prozedura amaitutakoan zerga-oinarria aldatuko da eta behin betiko likidazioa egingo da, eta bidezko kopurua eskatu edo emango zaio subjektu pasiboari.

Bigarrena.

Foru Arau honek aipatzen dituen udalerrien egungo tributuen ezabaketa, haren aplikazioaren ondorioa izanik, bai eta tributua horientzat aginduzko diren xedapenen indargabeketa Administrazioak, xedapen horien arabera, aurretik sortutako zorrak exigitzeko duen eskubidearen kalterik gabe ulertzen dira.

INDARGABETZE-XEDAPENA

1. Honako Foru Arau hau indarreko bihurtuz gero, berean ezarritakoaren aurka doazen maila bereko nahiz behegoko xedapenak indarrak gabe utziko dira.
2. Aurreko atalean xedatutakoa Foru Arau honen Xedapen Iragankorretan ezarritakoaren kalterik gabe ulertzen da.

AZKEN XEDAPENA

1. Foru Aldundiari baimena ematen zaio, honako Foru Arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak emateko.
2. Honako Foru Arau hau "Bizkaiko Herrialdeko Egunkarian" argitaratu eta biharamonetik bihurtuko da indarreko.